

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

159

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 29koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bitartez dirulaguntzak ematen baitira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu, kontserbatu eta OAI-PMH biltegien bitartez hedatzeko, 2021eko ekitaldirako.

2021eko uztailaren 2ko EHAA (130. zk.) argitaratu zen 2021eko ekainaren 22ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bitartez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu, kontserbatu eta OAI-PMH biltegien bitartez hedatzeko dirulaguntzak emateko araubidea arautzen baita, eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten baita.

Eskabideak aurkezteko epea, Aginduaren 9.1 artikulua dioenez, 2021eko irailaren 2an amaitu zen.

Aginduaren 13. artikuluan aurreikusitako kalifikazio-batzordea bildu zen, eta, eskabideak aztertu ondoren, proiektuak baloratu ziren, Aginduaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kalifikazio-batzordearen ebazpen-proposamena ikusita eta aipatutako Aginduaren 16. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorrita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakundeei bertan adierazitako dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.— II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeen eskabideak ezestea, aipatzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.— Pertsona eta erakunde onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Horri dagokionez, pertsona/erakunde onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Proiektuak deialdia arautzen duen Aginduaren I. eranskinean agertzen diren baldintza teknikoaren arabera egiten direla ziurtatzea.

b) Proiektuak gauzatzea dirulaguntzaren xede diren arloetan espezialistak diren enpresak kontratatuz (erakunde eta instituzio espezializatuen kasuan izan ezik).

c) Ziurtatzea ez direla katalogatzen edo digitalizatzen pertsonen segurtasunari, ohoreari, osasunari, intimitateari edo irudiari eragin diezaioketen datu pertsonalak dituzten baliabideak, ez eta genero-indarkeriari dagozkionak, Estatuaren segurtasunari eta merkataritzako sekretuari eragiten diotenak, eta Konstituzioan eta legeetan zabalkunderako aurreikusitako salbuespenak edo mugak dituzten beste edozein ere.

d) Jabari publikoan dauden materialak digitalizatu ondoren jabari publikoan mantentzeko konpromisoa hartzea.

e) Lizentzien esleipen oker edo desegoki baten ondoriozko erantzukizun oro bere gain hartzea.

f) Diruz lagundu daitezkeen gastuak deialdiaren ebazpena ematen den unetik 2022ko ekainaren 30era bitartean sortu eta ordainduko direla bermatzea.

g) OAI-PMH biltegi propiorik ez badute, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari 2022ko ekainaren 30a baino lehen, USB disko gogorra eman beharko diote, kontserbaziorako artxibo digitalarekin eta sortutako baliabide digitalen kopia digitalarekin (zabalkunderako kopia). Diskoan, baliabide digital horiei dagozkien METS erregistroak ere sartuko dira, Euskarianan kargatu ahal izateko, hala badagokio.

h) OAI-PMH biltegi propioa badute, diruz lagundutako proiektuaren xede diren erregistroekin sortutako set-aren URL bat bidali beharko dute Kultura eta Hizkuntza Politika Sailera 2022ko ekainaren 30a baino lehen.

Laugarrena.— Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2022ko ekainaren 30a da, dirulaguntzak arautzen dituen Aginduaren 8.14 artikuluekin bat etorritz.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, Aginduaren 18., 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, 2022ko irailaren 15erako justifikatu beharko direla.

Dirulaguntza jaso duten proiektuak gauzatu direla justifikatzeko, emandako dirulaguntza osoa hartuko da kontuan, baita pertsona/erakunde onuradunek egindako ekarpenak ere.

Bosgarrena.— Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

a) Lehen ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 60koa, dirulaguntza esleitzen den unean.

b) Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 40koa, dirulaguntza justifikatu ondoren ordainduko da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Seigarrena.— Pertsona eta erakunde interesdunei banan-banan ematea ebazpen honen berri, eta ohartaraztea ezen, dirulaguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean ez badiote dirulaguntzari espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko dela.

Zazpigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritz.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 29a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2022ko urtarilaren 12a, asteazkena

I. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKAERAK

Erakunde onuraduna	Diruz lagunduko den proiektua	Puntuazioa guztira	Dirulaguntza (euroak)	2021 (euroak)	2022 (euroak)
Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia	Proyecto digitalización y difusión del patrimonio cultural de la diócesis de Bilbao. Primera fase.	40,00	11.000,00	6.600,00	4.400,00
Bilbao Bizkaia Museoak SL	Fondo documental catalogación y digitalización II: instituciones privadas	47,90	10.000,00	6.000,00	4.000,00
Euskal Herriko Txistulari Elkartea	Euskal Herriko Txistulari Elkartearen ikus-entzunezko eta argitalpenen artxibo funtsa 2021-2022	41,43	12.550,35	7.530,21	5.020,14
Fundación Eresbil	Grabaciones históricas pertenecientes al Patrimonio Cultural Vasco *	67,10	17.035,57	10.221,34	6.814,23
Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.	Arrasate Press aldizkariaren digitalizazioa	47,50	14.492,76	8.695,66	5.797,10
Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.	Berrigara aldizkariaren digitalizazioa	47,50	12.602,40	7.561,44	5.040,96
Komunikazio Biziagoa SAL	ARGIAko argazkien katalogazioa II	46,29	13.000,00	7.800,00	5.200,00
Real Automóvil Club Vasco Navarro	Catalogación, digitalización, conservación y difusión del Patrimonio Cultural Vasco	50,00	12.190,00	7.314,00	4.876,00
San Telmo Museoa SA	Catalogación y digitalización del fondo fotográfico Antton Elizegi	55,03	11.396,00	6.837,60	4.558,40
GUZTIRA			114.267,08	68.560,25	45.706,83

* Eskabide hauen aurrekontua doitu egin da, akats aritmetikoen ondorioz.

II. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKAERAK

Labayru Fundazioa	
Proiektua	Digitalización y catalogación de carteles
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.3 artikulua.

Labayru Fundazioa	
Proiektua	Digitalización y catalogación de carteles - 2
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.3 artikulua.

Fundación Pública Casa de Cultura de Gernika-Lumo	
Proiektua	Digitalización fondo Ángel Navea
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.15 artikulua.

Asiain Ugarte Cristina y Petrina Echevarría Blanca	
Proiektua	Revista Entorno Valdizarbe
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.15 artikulua.

Asiain Ugarte Cristina y Petrina Echevarría Blanca	
Proiektua	Revista Entorno Zona Media
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.15 artikulua.

Donostia Kultura EEP	
Proiektua	Prensa histórica. Periódico Unidad: diario de combate nacional sindicalista.
Arrazoa	Ez ditu betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.3 eta 10.2 2.2) artikulua.

Bilbao Bizkaia Museoak SL	
Proiektua	Tarjetas postales catalogación y digitalización II
Arrazoa	Ez du betetzen dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 8.15 artikulua. (Proiektuan katalogatzea eta digitalizatzea aurreikusi den materiala material grafikoaren kategoriari dagokiola kontsideratu da).